

Elex-abestijak

BIZKAIKO EUZKERAZ



DURANGO-N
Florentino Elosu-zen echeazn.



M. 71763
F. 75709

ENTX

8.00

ATV

Laudemus nomen Domini cum cantico

(PSALM. 68)

32628

ELEX-ABESTIJA^K

BIZKAIKO EUZKERAZ

(Jaubeduna da).



DURANGO-N

Florentino Elosu-ren echean

1909-GARREN URTEAN.

OBISPADO
DE
VITORIA

✓
*Habiendo sido examinado
por nuestra orden el manus-
crito titulado Elex-abestijak
bizkaiko euzkeraz, venimos
en autorizar su publicación
é impresión, en vista de no
contener en él cosa alguna
contraria á la fe católica y
á los principios de la sana
moral.*

Vitoria 29 de Marzo de
1909.

✠ José, OBISPO DE VITORIA.
(Rubricado)

Hay un sello que dice: «Obispado de Vitoria.»

Liburu onetako ga, ge, gi, go, gu eta erderazkueta-
ko ga, gue, gui, go, gu bardin irakurten dire.

Euzkeldun abadiei

Beiñ baño sarrijago aurkitu izango zare, neu legez, nora jo eztakizuela euzkerazko eresti edo kanta-gaijen billa, eta ausaz geijenetan, zeuek nai eztozuela, leku emon deutsazue zeuen ardurapeko elexetan, erderazko kanta chachar guretzat egokijak eztiranai. ¿Zer egin leike ba, euzkerazkorik eztago ta?...

Baña, jo orra ta jo ona, nik beintzat pillatu dodaz edozeinbat; batzuk entzunagaz beste baga artuta, beste asko lagunen batzuk emonda, eta banaken bat euzkal-liburu en orri artetik atarata. Lan oneri iñarnutzala etorri jatan eskura «Eliz-cantachoac» izena daben liburuchua, Gipuzkuako euzkeraz egiña, eta andixeek be artu dodaz batzuk, eta eratu be bai Bizkaiko euzkeraz. Emen daukazuez guztijak liburuchi onetan batuta; artu egizuez abegi onagaz, zabaldu beitez Bizkaiko euzkal-erri guztijetara, erakutsi zeuen elextarrai, eta abesau edo kantan daijezala oneik, gaur egiten daben baño geijago elizkizunetan; bada oriñe nai dau Aita Santuak, eta ori aginduten deuzku, dalako guztiz lagungarria kistarren bijotzak Jaungoikuaganako maitasunez berotuteko; musikia eragillia dalako Jaungoikua aintzatu, alabau ta goratuteko, ta gure goguak Beragana eruateko. Orregaitik Valladolid eta Sevillan elexako musika zaliak euki dabezan batzarretan erabagi da, ondo izango dala elex-abestijak liburu baten pillatutia elextar guztijak abesauteko, orretarako, gaur arte ezagututenean abesti pillua aurrestik arduraz garbituta, zistriñ, chachar, gauze eztan asko errethan dirala, ta ichi bakarrik onak, zakonak, itzaltzuak, elexarako duiñ diranak. Ez dot esan nai onegaz, nik

opa deutzuendan liburuchu onek betetan dauzela elex musika zale orren asmuak: nik eztot egin or da emen banaka ankitu dodazan gaijak pillatu baño, nik eztaukat eskubiderik, jakiturijarik bez, onak edo charrik dirian erabagiteko; baña bai nai dot iñok baño geijago asmu eder orrek egipenez egistatuta ikustia, eta uste dot liburuchu onek, besterik ezpada, bidia edegi egin leikijola atzetik datozenai egikizun eder ori, ondo, artez eta zuzen bete dagien.

Bañia esango dan norbaitek len bestian geratutene gariala kanta onen soñua jakiñ ezik; emen eztagoala erestirik eta bai izki edo letrak bakarrik... Ondo difio; neuk bere badakit bide-erdian geratutia izango litzakela ori, eta orregaitik uste dot onen urrengo beste liburuchu batzuk ataratia, ereski edo musika ta guzti, irakasla, zuzendari ta musikia dakijenentzako. Alan erri guztijetan bardin abesau edo kantauko litzake, eta ez gifñakez erbestekotzat etsiko euzkal-errijetako elexetan, izanik danok anaijak, danok euzkaldunak, siñismen bakardun kistar alkartuak. Orregaitik Gipuzkuaren liburutik artu dodaz gai asko, eta alik gi-chien aldatu, eurakin batera edonoz abesau al izateko; orrexegaitik eresti edo musikia be bat bakarra biar da kanta-gai bakochentzat, eta alanche ezarriko deutzagun, artuten dogula, bardíñia danian, alde bijetako euzkaldunok dazauguna eta oituten doguna, eta osterantzian, geijen ezagutu eta oituten dana edo onen eresten deutzaguna. Orretarako, ereskidun liburu ori osua izan daiten, pozik artuko geunke ereski edo musikia 8, 20, 21, 26, 30, 58, 59 eta 60 garren kantuentzako.

Kantacho onek egogi izango lirake, echeko eta soloetako arazuetan eta beste asti orduetan kantauteko; orrekaz, oitu ezkero, gazte eta zarrak kantau daiezan eta gugandik urrundi daitezan beste soñu-kanta kalte-garri gangar gustiek.

Egin daigun alegiña danok geure euzkera maitegarija goratuten, bada alan geure aberrija goratuten da; eztaigun beintzat atera elexetatik geure berbetia, berakin batian bizi dakiguzan Euzkadiñ beti kistar sinismena eta anchiñako ekandu garbi-ederrak.

ABADE BATEK.

I

Gure Jaun Sakramentalduari

| *Ogi zerutik etorrija
Zu zara gure poz guztija*

Bildotz santua	Gauza guztijen
ara emen	Egillia
munduko gachak	zeru ta lurren
kentzearren	Erregia
sagrarijuan	gure artian
nun daguen	bizitia
lurra zerauz	jze zorijona
bat egiten.	dan guria!

Misteriorik	Etzaitut begiz
aundi jena	nik ikusten
Jaungoikuaren	baña bai fedez
oroipena	dot siñisten
gozotasunik	Sakramentaluan
gozuena	zelan zauzen
gizonentzako	jJesus laztana
daguena.	gu maitatzen!

2 *Or zagoz Jesus
altarian
gorde nai zaitut
bijotzian
gorde gorde bijotzian.*

Zeruetako Jaun andija
egiñik gure janarija
joh amodijo ugarija!
gizonarentzat larregija.

Ondasun danen iturrija
kentzeiko gure egarrija
joh misterijo pozgarrija!
zeru ta lurren mirarija.

Ondo bagako ichasua
zerutik jachiriko sua
joh amodijo aiñ osua!
arimarentzat jze gozua!

¿Zer moduz Jauna guk merezi
Zugandik dogu ainbat grazi?
Zugaz guk beti nai du bizi
eta zerua irabazi.

3 *Maitatu ta adoretara
Jauna, damuturik
nator zugana.*

- Poztu beitez
gaur gure arimak
Jesus ikusirik
or ostijan.
Anche dago
estaldurik
Jaun miragarrija
dana asturik.
- Janarija
zeruko ogija
gozo ta zurija
gure Jauna
adoradu
daigun bada
guztijok batera
belauniko.
- ¿Nok zerutik
eratsi zinduzan
ta ona ekarri
gure Jauna?
- Bakit orain
zer dan ori
da maitetasuna
guganako.
- Su ta garra
biztu eizu Jauna
gure bijotzian
maite zaizan;
gurarijak
berba ta egipenak
gaur ganik zeuretzat
izan beitez.
- Zerukuak
eta lurrekuak
mundu guztikuak
bat egiñik
kantau daigun
bijotzerik
¡gora gora Jesus!
¡gora beti!

- 4 Sakramentuan gorderik
zagoz neure Jesus ona
zeru lurren zorijona
maitagarri ta pozgarri
neuretzat.
Neure bijotz gaišua ta
nik al neikian guztija
¡ay Jesus maitagarrija!
izan bedi izan bedi
zuretzat.

5 Jauna emen gatoz
 danok batera
 eskintzari ederrak
 Zuri egitera;
 eskintzari onek
 nai doguz bete
 mundu triste onetan
 gagozan arte.

Alan bada esangu
 bijotz guztijaz
 urrin pekatua
 il bei Barrabas
 ta gure arimetan
 aldendu barik
 gaur sartu dan Jesus
 bizi bei beti.

Bizi bedi Jesus Sakramentadua;
 Bizi bedi, beti goratu eta maitetua.

II

Jesusen Bijotzari

6	<i>Jesusen bijotz</i>	<i>Jesusen bijotz</i>
	<i>maitetzua</i>	<i>maite ori</i>
	<i>Zu zara gure</i>	<i>Zu zara gure</i>
	<i>Jaun altzua.</i>	<i>agintari.</i>

Guazen kristauak
zeruan legez
lurrian bere
da agurgarri
guazen, guk bere
adorau daigun
ta alabau daigun
Bijotz ori.

Erdu gugana
Jesus maitia
Zure berbia
betetara,
Zu zara gure
Errege Jaube
bizi zeu bage
ezin gara.

Zu zara Jesus
Jainko maitia
nire Jaubia
beti zara;
ni natorkizu
naibagetuta
guztiz minduta
zure aurrera.

Adiskidetzat
Zugandutera
Zure Biotzera
natorkizu;
artu nagizu
barru orretan
ta eundi danetan
euki naizu.

Beste bat. *Josuren Bijotz
guztiz Deuna
gure Jauna Zeu
utsik zara.*

Bizkai guztiko
euzkeldun onak
kistar zinduak
gaur etorri
zuben bijotzok
emen eskinten
Jaungoikuaren
Bijotzari.

Goguan dogu
Zuk artu zendun
neke ontzija
geure aldez
Bijotza estu
zanak etenda
odol-izerdiz
ta negarrez.

Gu obendijok
gaizkatuteko
Josu maitia
untzau ziñan
ta Bijotz orren
ur-odola be
jarijon zendun
Kurutzian.

Olan iltziaz
etzan bez ase
Bijotz on orren
maitasuna;
ogi ta ardao
iduripian
egin zachaku
or laguna.

Geugaitik eta
gure aldez be
Jaun maitekorra
Zeu il zara:
Zeugaitik baña
Zeure kaltez geu
bijotz bakuok
bixi gara.

Zure bijotza
gartzen dan suban
artu gure loi
ta gaxuok

gar uts orrekiñ
obena ketu
garbitu, arren
bai goguok.

Bijotzan dozun
maitasun suba
amatako iñoz
eztalako,
eutsi geuriok
berton sartuta
noz edo noz or
su artzeko.

Zure begijok
Josu laztana
bigurtu jarren!
Bizkaijari;
gatxetik Bijotz
orrekk askatu
ta Zeugaz lotu
laster begi.

Jauna Zeu maite
gura zaitugu,
gura ixan ba Zeuk
eskarijau:
Euzkeldun danok
maite zaigula
gaizkatuteko
aberrijau.

7 *Oh Bijotz gozo Jesusena
gure bijotzen gozamena
Jesus onaren Bijotz ona
erruki zaitez gugaz Jauna.*

Gugaitik zagoz
zauritua
gogor arantzaz
koroitua,
eta kurutzan
untzatua
guztija penaz
samindua.

Zinduzenian
kurutzetu
majtetasunez
ziñan lertu
guzti guztija
odol-ustu
gu gaizkatzeko
erijoztu.

Ainbesteraino
nozu maite
Bijotza eskinten
zagoz orche
Jesus maitia
bai nik bere
Zuri erantzun
gura neuke.

Maitasun laba
goritua
Karidadian
su-gartua
satu egizu
gaur mundua
gizonen bijotz
izoztua.

8 *Zu zara Jesus
gure poza* *ara Zuretzat
guk biotza.*

Usuak ez dau
iñun bez pozik
egaz ezpada
jarichiko,

Zeua baga ni be
alperrik nabill;
bakerik ez dot
aurkituko.

Gu Zuretzako bakarrik Zeugaz
 egiñak gara goiko zeruban
 eta ez lurrera osoro dogu
 makurtzeko: atsedengo.

- 9** *Nik billatu dot jai neure poza!
 maite nebana jai neure estija!
 ona emen dakust gorde nagizu
 altara aurrian Bijotz Zeurian.*

Neketan nago Jesus laztana
 lasterka nator bide luzian
 iturri garbi gozuetara
 oriñ azkarra duen antzera.

Eskiniarren lurreko eztijak
 nazalako ni gozo zalia
 ¿zer emon deuste? ur-tanta mingots
 gose-egarrijen esnatzailia.

¡Ai! balekije gizonak zer dan
 Zure ur garbijen gozotasuna!
 ¡zeinbat sainiñek leukake eztija
 ta zeinbat gaišok bere osasuna.

Zuretzako Zuk egiñak gara,
 Zugaz nai dogu bizi maiterik,
 Zugandik urrun Jesus biguna
 gure bijotzak eztau bakerik.

10 *Deijez daukagu Jesus, deijez, bagilian egunero Bijotza samur samurrik, geure bijotz epelak chingartu nairik.*

¿Nok eztantzu gogoz Jesusen dei bigun ori?
 ¿Norentzat dogu bijotza, geure maite Jesusentzat ezpada? ¿Zer maite izan giñaike, kristiñauak, gure betiko zorijon ori laztandu ezik? Ea bada, bijotzdunok; guazan Jesus maitiagana, guazan danok, arren.

11 *Alkar bat egiñaz
 oh Bijotz laztana
 gatoz samurturik
 eskian Zugana.*

¿Zeiñ argik poztu leigu
 gauturiko eguna
 gure bijotzetako
 utsune illuna?
 Lurrian ezta sortzen
 eguzki argiduna.

12 *Jesusen Bijotz laba gartsua
 emoizu Jauna Zerorren sua
 gartu daitezan
 deija entzunda
 gatortzuzanon
 bijotz leituak.*

¿Zek zakaz zerutik lur illun atsitura, edurraren zuri-garbitasundun Jesus ederra? Pe-katuzko laiñotan gauturik dago gizonen bijotza. ¿Nora bialtzen zaitu Aita zerukuak? ¿No-ra? Erijotzia dagotzu kurutzian begira.

Zeru ta lurra
izaki apurra
utsa guztija izarpian;
eztija mingots
garmendijak otz
dira Bijotz orren aldian.

Gura dabena
zeru guena
lurre-raturik ikusi
Bijotz barrura
Jesusen gura
betor ta bego orche beti.

¡Bijotz biguna!
¡Bijotz garduna!
bijotz guztijen kutuna:
erdu geugana,
Jesus laztana
Bide Egi Bizi zariana.

¡Ai nok leukian
garron artian
bizi izateko atsegina!
¡Negu ta gaurik
ezautu barik
argi ta bero ai bagina!

Zirzarka beti,
 izar kiñuti
 ibiltarien antzera,
 odoi lurzalen
 sorbalda itzalen
 gan igoteko guenera.

Geutartu zaite
 oh Bijotz maite
 maitagarriro apaldua
 bizi laño onen
 ordez ta ondoren
 zabaldu iguzu zerua.

¡Oh Bijotz gozo gozua
 zerutik jachirikua!
 ¡oh aingeruen eztija
 gizonen billa etorrija!
 Zugana gatoz
 ozkirriturik
 ¡oh Jesus ona! su billa,
 gure eskarija
 adi ta entzuna
 ¡oh Jesus! izan dedilla. Amen.

- 13 Adoratzen zaitut Jesusen Bijotz gozo gozua;
 Gartu gure bijotza chingartuten zagozan
 maitetasun orretan.
- 14 Maite zaitut Jesusen Bijotz gozo gozua;

Sutu neure bijotza Jaungoikua maitatze-
ko dozun su garrian.

Bezte bat. Adoratzen zaitut Jesusen Bijotz go-
zua;
Gure bijotza Zure amorijozko gar bizian,
dedin sutua.

III

Ama Birjiña sorpen garbijari

15

*Jaungoikuaren urrengo zara
Marija gure Jaubia
zarialako Jesusen Ama
eta guraso guria;
izan zakiguz orrexegaitik
ichaso onetan ontzia
Zure bitartez jarichi daigun
portu dontzuan sartzia.*

Zu zara argi Zu zara garbi
loitu bagako iturrija
zara Luzbeli emon zeuntzana
iñok ez lako lotsaria:
Zara beraren bildurgarrija
arerijo bat ain andija
nori burua dana triskauta
ipiñi zeuntzan gerrarija.

Galanta zara oso Marija
 apaintasunez chit betia
 lorategi bat aiñ ederra ze
 paradisua baño obia;
 nora ezin zan ezelaubere
 iñundik sartu sierpia
 inguru inguru zuk zeunkalako
 graziaz einda sendo ormia.

Ez da gauzarik Zu duiñ andirik
 Egilliaren egiñetan
 ez eguzkijan, ez illargijan
 ta gichiago izarretan;
 aingeruak da santu guztijak
 berago dagoz zeruetan,
 bakarrik zaukaz Jaunak albuan
 Bera jarten dan jargoijetan.

- 16 *Guztiz garbija zara Birjiña
 zeruko Erregiñ aundi ja
 kendu gugandik pekatu danak
 emon Jaunaren grazija.*

Agur zeruen edertasuna
 larrosa zuri gorrija
 apaindurijen lora bikaiñez
 Jaungoiko Berak jantzija;
 bakar bakarrik Zu izan zara
 sortua garbi garbija
 agur dontzella grazijaskua
 grazi beraren tokija.

Zu zero lurren maitegarritzat
 zorijonian sortua
 mundu onetan ekach artian
 gabiltzan danon portua;
 Zu gure Ama gure bizitza
 gure bijotzen gar sua
 Zu aingeruen zoragarrija
 Zu santu danen zerua.

- | | | |
|----|---|--|
| 17 | Goizeko izarra
guztiz argija
orban bagarik
ikusten da.
Baña Marija
Zure onduan | aren argija
illuna da.
Agur Marija
neure Erregiña,
agur, agur,
neure Ama agur. |
| 18 | <i>Zure sortze garbijaz
oh Ama Birjiña
munduan zabaldu da
poza ta atsegiña.</i> | |
| | Erbestetuak giñan
gu paradisotik
Eva-kin bai galduak
lenen lenengotik;
baña Zu oh Marija
sortu ziñanetik
agertu da guretzat
zerua zabalik. | Emen gagoz Marija
gu pozez beterik
emen Zure oñetan
Zu maitetu nairik;
gure oraziñua
errukiz entzunik
ez guri ukatu Ama
Zuk laguntasunik. |

19 *Bijotz bijotzetik dogu
autortzen Marija
sortu izan ziñala
osoro garbija.*

Bakar bakarrik munduan
Birjiña Marija
sortu ta jaijo ziñan
guztizko argija,
pekatutrik bagia
osoro garbija,
Jaungoikuarena zan
obra ain andija.

20 Mundua zelan poztuten daben
goiz egun senti ederrak
alanche ditu gure bijotzak
poztuten Zure sorrerak;
edertasunez miragarrija
dana grazijaz betia
*guztiz ederra zara Marija
sortzetik garbi garbija.*

Zure edertasun miragarrijak
dauko zerua pozturik
aingeru eta santu guztijak
maitetasunez beterik;
izanik zure apaindurija
zeru ederren gloria,
*guztiz ederra zara Marija
sortzetik garbi garbija.*

Ordu onian sortua zara
 zeru ta lurren pozgarri
 ainbat grazija deuzkuzuzala
 mundura guri ekarri;
 izan daitela gure kantua
 zeruko kantu alaija,
guztiz ederra zara Marija
sortzetik garbi garbija.

21

Goiz arratsetan
ordu danetan
Birjiña goratu daigun;
zeruko izarrari
Ama garbijari
gogotik kantau daijogun.

Jaunagandik
 Beragandik
 Zu izan zara autua
 triskauteko
 zapaltzeko
 Luziferren burua.

Zeru zelai
 guztiz alai
 erdijaren erdijan
 jarri bedi
 jargoi glori
 eta graziz betian.

¡Ai ze poza!
 guk bijotza
 daukagu lertu nairik,
 gure Ama
 on laztana
 zariala jakiñik.

Milla aingeru
 Zure inguru -
 pozez soñu gozuan
 Zu onretan
 ta alabetan
 beti dagoz zeruan.

IV

Lora-illerako

- 22 *Guazen guazen guztijok
dontzella Amagana
eskintzera bijotzez
lora eder bana.*

Ama bijotzekua
dontzella garbija
zeruko edertasuna
ta izarren argija;
Zuri eskinten gatoz
lora lurrekuak
Zugandik artuteko
gero zerukuak.

Loraz estaldu dira
mendi ta zelaijak
orriz oso jantzirik
arbola tantaijak;
Zure bijotz erdijan
dontzella maitia
ugari jaijo izan da
birtute loria.

- 23 *Guzti guztijok alkar arturik
gure bijotzak loraz beterik
opa deutzuguz Zuri Marija
zeruko izar argija.*

Lóra guztien lora
grazien grazija
Zu zara Ama maite
dontzella garbija

ill au bada izanik
loratzu argija
Zuri opa deutzugu
osorik guztija.

Ea bada guztijok
bizkortu gaitian
biotzak auzpazturik
Amaren aurrian.

Adanen seme alabok
erbeste onetan
belauniko gaukazuz
gaur zeure oñetan.

Gure premiñen barri
zuk ondo dakizu
guzti guztietara
begira egizu.

Zugan iminten dogu
geure poz guztija
izanik zu grazien
iturri ugarija.

¿Zelan guk ez billatu
Zu Ama maitia
izanik izar argi
zeruko atia?
Pekatari maitiak,
Ama bera dogu,
gura dogun guztia
beragan daukagu.

Orain ugariturik
bere mesediak
erraztu gura deuskuz
zeruko bidiak.

Asmo santu ta onak
artu aurrerako
biziera on baten
alan irauteko.

¡Birjiña sortueran
garbija zariana
aingeruen Erregiñ
ta Amacholatzana!
lora eder onekaz
nator nì Zugana
artuizu lora artian
nire bijotz dana.

Ara emen larrosa
polit da gorrijak
klabeliñ ederrakaz
lirijo zurijak;
pozez aratu doguz
mendi ta zelaijak
Zuri eskiniteko
guztijok alaijak.

24 *Erdu guazan guztijok
lorakaz aldرا baten
Ama dogu ta opaten
lorak Marijari.*

Maijatzeko lorakaz
eijo daigun koroia
maitetasunesko doia
geure Erregiñari;
guazan gazte ta zarrak
Marijaren aurrera
guazan koroia eruatera
Ama maiteari
guazan guazan.

Marijaren semiak
amaitu artian illa
gabiltzaz lora billa
emoteko Amari;
lorakaz eskuetan
gatoz pekatarijak
bijotzez eskarijak
egiten Berari.

25 *Etorri zaiz kistarrak*
Ama Mirengana
baratzeko loriak
gogoz eskintera
Agur Donoki-lora
Euzko Bakalduna
Zeuretu gaur egixu
geure lora sorta.

Errukorra zara ta
erruki zakigu
geure bijotz emoi ja
ontzat be bai artu;
eztogi urre-zidarrik
bijotza bai dogu
or Ama lora artian
imiñi dautzugu.

Egaztijak zugatzan
dautzu abestuten

Eguzkijaz jantzita
zakusgu Andria
illargija oiñpian
daukozu imiñita,
Zeure buru gañian
amabi izar dira
jagur Jaungoiko-Ama
neskutsik bakarra!

lorak euren usaiñak
deutzuez eskinten;

geuk bere m̄utasunez ordañez egiguzu
 betia Ama Miren abegi gozo bat.
 geure bijotz osua
 dautzugu emoten.

Geure lora politak
 eztira geuretzat
 euren usain gozua
 dana da Zeuretzat;
 artu, arren, egixuz
 on eta edertzat

Zeure aurrian Ama
 gagoz auzpezturik
 Zeure onespen baga,
 eztogu deus onik,
 onetsi gagixuz ba
 goiko bakaulkitik
 eta beti Euzkadi
 jaboxu gachetik.

V

Ama Birjiñari

- 26** Beti dontzua izan bedi
 Zure garbitasuna
 Jaungoiko Bera gozatzen
 daben edertasuna.
 Zuri zeruko Erregiña
 dontzella eder Marija
 opa deutzudaz bizitza
 bijotz eta arimia:
 ez nagizu Ama ichi
 artu naizu Andria.

27

- ¡Oh Marija!* gorde naizu
¡nire Ama! ta suzendu
¡ilkorren poztasuna! zuregana zerura.

Agur zuri zeruko poz
 Jaunarentzat imana
 agur gure zoragarri
 Satan goitu zenduna.

Bere grazien jaubetzat
 zaukaz Zu Erosliak
 alako Amagaz poztu
 gaitez pekatarijak.

Fediagaz deitzen deutzut
 entzun naizu Marija
 begiratu egidazu
 arturik errukija.

Izan nakizun seme on
 Zuretzat bizi nadin
 Zu goratu ta maitatzen
 azkenez gura dot ill.

Jaunaren onak Zugaitik
 dagidazan jarichi
 eurak kantetan zeruan
 Zugaz naitian bizi.

28 *Ama maite Marija
 egiguzu lagun
 Zure bitartez Jesus
 guk ikusi daigun.*

Aingerutar lirijo
 estimagarrija
 usain gozodun lora
 zerutik jatsija;
 gorde gagizuz Ama
 guztiz maitatija
 ez dagigun zikindu
 birtute garbija.

Zure koro ederrak
 ugarituteko
 arren eskatzen deutzut
 Zeuk lagunduteko;
 erdue bai gastiak
 zeruratuteko,
 Birjiña deijez dago
 Berana juateko.

Estadu bat aututen
 zeregiñ jakiñ ez
 Zure argitasuna
 indazu mesedes;
 ez naitela itsutu
 griñaren indarrez
 aukeratu dagidan
 egoki dan bidez.

Inpernuko katiaz
 gogorki loturik
 pekatari tristiak
 dagoz itsuturik;

Ama errukitsua
 Zuk argi egiñik
 ez daitezela aurkitu
 betiko galdurik.

¡Oh pekatu galgarri
 madarikatua!
 aserraturik dauko
 Jaungoiko ontsua;
 entzun Ama biguna
 gure erregua
 bigundu Zeuk Jaunaren
 asarre justua.

29

Agur izar eder
 Birjíña maitia
 agur Ama gozo
 zeruko atia.

Aingeruak Zuri
 barri onak emonik
 erakarri jakun
 bakia zerutik.

Lotuak askatu
 itsuak argitu
 on guztijak emon
 gach guztijak kendu.

Zaite Ama bigun
 guretzako izan

gure erreguak
 Jaunak entzun daizan.

Dontzella bikaiña
 egiguzu argi
 izan gaitezan gu
 umill eta garbi.

Bizibide on bat
 deutzugu eskatzen
 Jesus ikusteko
 Zugaz gozatuten.

Aintza Aitiari
 eta Semiali
 bai ta Goteunari
 orain eta beti. Amen.

- 30** Ama maite
 maite onen
 alabatzat gagozanok
 berari gaur
 eskintzera
 guazen gure bijotzak,
 bere sortze
 garbijaren
 izen zoragarrijan
 gorde gaizala guztijok
 bai bere magalpian.
 Ama maite
 maite onen
 alabatzat gagozanok
 Berari gaur
 eskintera
 guazen gure bijotzak.

- 31** *Guazen guazen guztijok*
Mariarengana
guazen bai eskintzera
bijotz eder bana.

Zu zara gure Ama
 Birgiña Marija
 izar eta eguzki
 guztijen argija;
 aingeruen Erregiñ
 oso mirarija
 izan zaite euzkeldun
 danen gidarija.

Zure semiak pozez
 gara gaur alkartzen
 eta gure bijotzak
 deutzuguz eskintzen;
 ondo dakigu Ama
 Zugan dana etorten
 Zure magalpe ortan
 dozula jagoten.

Argi guztien argi
sutzua Zu zara
agaitik Zure biar
gaur aurkitzen gara;
zuzi bat bialduizu
gure bijotzera
seme leijalak izan
gaitezen aurrera.

Gaur errukija Ama
euki guretzako
Zure seme alaba
guztijoentzako;
zeruan lekucho bat
egizu geroko
il da Zure ondora
gu juan ordurako.

32 Erbesteturik nago
negarrez munduan
ξnok bada poztuko nau
aiñ zori galduan?
Nire aldez badaukat
zeruko Erregiña,
pozik igaroko dot
ainbeste premiña.

33 *Ave gau ta egun* *Zure oñetara*
gatoz kantetara *ave Marija.*

Agur agur dontzellen
dontzella Marija
marfilezko torre
izar eguzkija;
zeruko azuzena
loi bage jaijua
millen artian zara
Zu aukeratua.

Graziaz ornidua
 beti izan zara Zu
 Jaunak zaituzalako
 osoro dontzutu,
 Zeugan bai zeunkalako
 ainbat edertasun
 Berberak zinduzana
 Amatzat artu.

Agur agur Erregin
 gure icharopena
 gure bitartekua
 baita gure Ama,
 amorezko iturri
 Zure begi ederrok
 biurtu egizuz
 arren gugana.

- 34 *Mendi gañetik
 eguzki argija
 gozoro dator goizian;
 gozuago da
 zeruko doia
 gure arima sortzian.*

Bizkortu dira mendi zelaijak
 dakustaz eder jantzirik
 eguzkijaren mun bigunakaz
 orriz ta loraz josirik:
 itzarri daigun gure arimia

apaindu daigun onbidez,
 Marija Amaren arpegi ederra
 ikusi eztaigun asarrez.

- 35** Ainbat edertasun
 ta argi loretan
 zerua ikusten da
 elex onetan;
 Zu zara zero
 ain pozgarrija
Ama maite Birjiña Marija.

Jakiñik zarela
 errukitsua
 zabaltzen da gure
 bijotz gaxua;
 bai gugaz izan -
 beti errukija
Ama maite Birjiña Marija.

¡Oh Ama! esaten
 deutzugu pozez
 Zeuriak garela
 bijotz bijotzez;
 Zu izan beti
 gure Jabia
Ama maite Birjiña Marija.

- 36** *Icharo daigun zorijonera*
Ama onagan juatia:

*Bera dalako zeru ederraren
Jaunak eginda atia.*

Ama guria goijetan dago
zeruetako edergarri
bere semiak gabiltz lurrian
negarrez eta errukarri.

¡Ai neure Ama, etzaitez aztu!
nazala Ebaren umia
Jesus laztanak kalvarijuau
zuri emoniko semia.

Erregiñatzat koroeturik
Zu zagozala zeruan
¿zelan geintekez pozet gu bizi
erbesteturik munduan?

37 *Agur agur agur Marija
agur agur guztiz garbija.*

Gloria ta alabantzak	Pekatu bagakorik
Ama Birjiñari	Adanen arrazan
Marija orban bage	Zu bezterik iñor bez
sortu izan zanari.	ez da ifñoz izan.

Lelengo gurasuen	Marija Zu ain garbi
pekatuak ez du	ain santa sortua
sekula Marijaren	sugiari deutzazu
arima esaindu.	apurtu burua.

- Betikotasunetik
autua zu zara
Jaungoiko-Semiaren
Ama izatera.
- Jaungoikuak bedeinka
Zaizala Marija
edertasunez zara
bere irudija.
- Zeru lurren mirari
Ama ta Birjiña
agur gure bijotzen
Jabe ta Erregiña.
- Zu zaitugu guk Ama
Euzkaldun errijan
laguntzalle sendua
premiña guztijan.
- Jaunak berariz zara
mirariz egiña,
beste bardiñik bage
Ama ta Birjiña.
- Aren baratzan zara
lora doatsua
Gizon eta Jaungoiko
da Zure frutua.
- Zugan uts utsik Ama
birtutia dago
ach-ura bera baño
askoz garbijago.
- Oh Birjiña Marija
¿zer dozu irudi?
edur egin barrija
ez Zu baxen zuri.
- Zuk gure erregua
arren entzun eizu
Ama Zure laguntza
zerutik iguzu.
- Entzun egizu Ama
entzun zeru goitik,
Euzkotarren fedia
gorde egizu bizik.
- 38 Agur Jesusen Ama
Birjiña maitia,
agur ichaso-izar
dizdiatzallia;
agur zeruko eguzki
atsegin betia
agur pekatarijen
kaija ta estalpia.
- ¡Agur gixonen Ama
zeruko Erregiña
Ama gozo maitia
maitasun-oxiña!
Zugandik aldetia
da gauza samiña,
agur neure bijotze
poza ta atsegiña.

¡Agur gure poza ta
 atsegisiñ guztija
 atsekabe danetan
 pozgai ta eztija!
 agur Birjiña eder
 ta zoragarrija
 eutsi neure bijotza
 baita be bizija.

Baña Zugandik alde
 bijotzak ezin dau
 Zugana beti dua
 Zugaz bizi nai dau;
 Birjin bardin-bakua
 onetsi gagizuz
 agur, Ama neuria
 agur, agur, agur.

39 Agur zero luraren
 Erregiñ maitia
 Jacob-en izar barri
 David-en Torria;
 sortua orban barik
 graziaz betia
 Zu munduko osasuna
 bake emollia
 Zu euzkotar guztijen
 Ama ongillia.

Agur agur Marija
 zeruko atia
 egun sentiko izar
 bizitza guria;
 samiñ da zure ondotik
 alde egitia
 gure gurarija da
 Zugaz egotia,
 emen isten deutzuguz
 bijotz ta arimia.

39 big. Agur Marija Ama geuria
 kristiñauaren izar argija
 emon eiguzu Zure Semia
 zeru-lurren eguzkija.
 Ez dago zeruan
 sartuko ez danik
 bijotzez Marija
 maite dabenik.

Zure jarleku Begoñakua
 Zeu ikusijaz dago zerua
 uste dogula zeure onduan
 aingeruakaz kantuan.
 ¡Ze poza gau ta egun
 jardun kantari
 Ama donzella dan
 Erregiñari!

40 *Neure Ama aldestu ta
 on laztana jagon beti,
 Zuretzat ar- zeruratu
 tu naizu, nagizu.*

Goijetako izar argi
 illuntasun bagia
 sortu ziñan unechutik
 Jaunak onez betia.
 Amodijo ederraren
 Ama maite gozua
 ichopena Zugan daukat
 ustakida osua.

Negarrezko erbestian
asko gagoz sufritzen
gure malko samintzuak
azi zaite legortzen.

Begiratu egiguzu
Ama errukiz zerutik
ikusi dagigun Jesus
Zugaz batian pozik.

Nai badozu diño Amak
Jesus onagaz bizi
pekaturoko bidiak
biar dozuz zuk ichi:
Izan gaitian ba danok
Jesusen serbitzari
zeruetan egoteko
Aman onduan beti.

- 41 *b* Jaungoikuak gorde zaizala Erregiña
b errukiz beteriko Ama
a bizitza, gozotasun eta icharopen geuria
b Jaungoikuak gorde zaizala
b Zeuri deijez gagoz
a Ebaren ume erbestetuok
b Zeugana gatoz gu zizpuruz
b sentimentuz eta negarrez
a negarrezko erri onetan
b ea bada Andria
b bitarteko geuria
a biurtu egizuz gugana
b Zure begi errukitsu orrek
a eta erbeste au irago eta

- b erakutsi egiguzu Jesus
 b Zeure sabeleko frutu
 b bedeinkatua.
 aa ¡Oh bijotz-biguna!
 aa ¡Oh errukiorra!
 b ¡Oh Marija Birjiña gozua!
 b erregutu egizu gugaiti
 b Jaungoikuaren Ama santia
 aa merezidu daigun
 b jarichitia
 a Jesukristoren eskintzarijak
 b Amen Jesus.

42 *Zeruan zeruan zeruan
an dago nire Ama
zeruan zeruan zeruan
ikusiko gara.*

Nik bai ikusiko dot
Amacho zeruan
anche egongo gara
alkarren onduan.

Laster laster juangonaz
Amachoren ondora
neure maitetasuna
kantuz agertzera.

Ziur icharoten dot
Bera nik ikustia

Banua bai banua
Birjiña ederragana
Bera ikustia beti
da nik nai dodana.

Marija nire Ama
laster ikusiko dot
zeruen goijenian
anche billauko dot.

Aingeruen artian
glorijaz betia.

VI

Misiño egunetarako**43 Pekatarijai deijak**

Jesus artzain maitia
dator gaur dedarrez
ardi galduen billa
ariu ta negarrez.

*Damuz eta negarrez
nator ni zugana
Jesus jai! nik damu dot
pekatu egiña.*

Ama baten negarrak
semia galtzian
ez dauke zer ikusi
onenen aldian.

Damuz eta negarrez

¿Nora zuaz igazi
esker gaistokua?
arren aitu Jesusen
bijotz nai bakua.

Erri asagoetan
 ¿zer aurkitu dozu?
 gosia ta negarra,
 autortu nai bozu.

¿Zelan zu aztu zara
 Jesus on-onegaz
 Bere mesediakaz
 ta Bere laguntzaz?

Erdu pekatarija
 bide leun garbira
 gura bazara igon
 dontsuen tokira.

¡Ai ze poza Beretzat
 aurkitzen bazaitu!
 lepo ganian pozik
 eroango zaitu.

Jauna gana bazatoz,
 zeru ederrian
 ¡ze kanta ze jolasak
 egingo dirian!

Ez bada ez gogortu
 gizon zoratua;
 ez beste bein larritu
 Jesus maitetsua.

Arren urten lasterka
 bide deungetatik,

agurra egiezu
bijotz bijotzetik.

Agur mundu zorua
agur pekatua
gaur-ganik billau nai dot
Jesus gozotsua.

44 Jesus kurutzian josija-ri

Jesus gure Jaun maite
amodijotsua,
damu dogu guztijok
Zu ofendidua.

Josirik ikustian
kurutz orretan Zu
errukiz jai! bijotza
¿nok urratuko ez dau?
baita baleuko bere
arri biurtua.

Damu dogu guztijok...

Burutik oñetara
gorputz eder ori
zauri gordiñ egiñik
dozu guztijori:
jai zorigaistokua
geure pekatua.

Ofiak esku ta albua
 danak zulaturik
 bizkar-aldia azotez
 guztija apurturik
 arantza gogorrakaz
 josirik burua.

Ainbeste miñ gogorrez
 gaixo zariala
 artzain bat ardiaren
 atsian bezela
 geure billa zu zabilz
 errukiz urtua.

Jesus Zeu gure billa
 ta guk Zuri igasi
 geu biar gozuzala
 Zeuk Jauna dirudi.
 ¡Oh gizon eskerbako
 gaisto zoratua!

Jauna ¿zer galtzen dozu
 gu ezok galtzian?
 ¿gu baga etziñian
 betiko guztijan?
 ¿Zek zaukaz ba guretzat
 orren laztantsua?

Zu baga ezin geinke
 gauzarik bapere
 ezta ezelan emon
 arnasa bat bere.

Zu ondasun guztien
sustrai ta burua.

Au onelan jakiñik
gibizi izan naz ni
beti urrin Zeu-ganik
zeure iges beti?
jegiz euki nau lurrik
oso itsutua!

45 Andre Marijari eskariak

Pekatarijok Ama
Birjiña zaituguz
Zeugan geure bijotzak
guk iminten doguz.

*Egizu Zeuk Marija
gu gaitik erregu
erijotzako orduan
ez gaitezan galdu.*

Zeure izen santua
balijau bekigu
Zeue bijotz onian
ustia guk dogu.

Egizu Zeuk Marija

Beiñ bere iñor ezta
ta bai Marija Zu
ama izan ezkero
dontzella gelditu.

Jaungoikuaren Ama
egiñik zakusgu
arren Zeure semetzat
ezagutu gaizuz.

Zeure Semiak gaitu
zerutik billatu
ξzelan Zuk naiko dozu
gu gaitezan galdu?

Zakiguz bada lagun
daiguzan garbitu
bijotzak, pekatuan
ez gaitezan lotu.

Pekatu egin dogu
damu be bai dogu,
agaitik ez gaitezan
infernuan sartu.

Alperrik infernuak
artuko dau damu
orain gero ta beti
Zeuriak gara gu.

Zerurako bidia
Birjiña zara Zu
ara gura dabenak
billau biar zaitu.

46 Ama Birjiña Doloretakuari

Agur dolorezko
Ama larritua
Erregiña laztan
errukiz urtua.

*Artu gaizuz Ama
seme nekatuok.*

Oh Rakel ederra
nekez asetua!
gu semiok gagoz
negarrez urtuak.

Zeure bijotze
kañibet sutsuak
sartu izan deutzuz
geure pekatuak.

Orregaitik gatoz
guztiz damutuak
garbitu gurarik
negarrez erruak.

¡Oh Ama biguna!
joh errukitsua!
arren izan gaitez
zeruan sartuak.

Geure zorijonak
Birjiña prestua
zeure bitarteko
dituguz artuak.

Zeure ezpatak dira
arma zorroztuak
bertan apurtzeko
diabru galduak.

Ikusi nai geunke
guk erbestetuok
Zeure seme laztan
Jesus gozotsua.

47 *Erdu pekatarija
erdu elexara
Jaungoikuaren itzak
gogoz entzutera.*

Ez egon pekatuan
ez egon luzaro
damu izan ez daizun
alperrian gero.

Pekatuan gaur bertan
etzaten bazara
menturaz infernuan
itzarriko zara.

Misiño santu onetan
ontzen ez bazara
menturaz urrenguan
biziko etzara.

48 *Jesus eskatzen deutzut
nik parkaziñua,
lotsaz beterik nator
guztiz damutua.*

¿Noz arte biar zara
egon pekatuan
ikusirik zauzala
ija infernuan?

diadarrez daukazu
 Jesus Jaun maitia
 benetan nai dabela
 zu laztandutia.

Jesus agertzen jatzu
 dana urraturik
 odola darijola
 kurtzean josirik
 neure bijotz guztiko
 Jesus maitetsua
 badakit neu nazala
 Zure borrerua.

Nire egipen eta
 ibilli deungakaz
 esku ta oñak deutzudaz
 josi untziakaz;
 arantza zorrotzezko
 koroi gogorrori
 nik jai! imini deutzat
 Jesus maitiari.

Emen naukazu Jauna
 negarrez urturik
 neure pekatuakaz
 ondo damuturik;
 Jesus eskatzen deutzut
 bijotz bijotzetik
 bedeinkatu naizula
 kurutz-orretatik.

- 49 *Pekatarijok gatoz
Jesus gaur Zeugana
seme galdua legez
bere aitagana.
Pekatu egin dogu
jai Jesus laztana!
eta samindu dogu
Zure bijotz ona.*

Zure bijotz ederra	deijkez zagoz Zu beti
su garrez betia	ξnun zara maitia?
da berotzen dabena	nigan aurkitutene da
kristiñau fedia	betiko bakia.

VII Naskaldija

- 50 *Kristo gure Errege
adoradu daigun
zeru-lurren Jaube
autortu, bai, daigun.*

Fede bizi baten	Jesusen etsaiak
danok ernai	betoz noz nai
Zuriak gara gu	armak eskuetan
joh Jesus! bai,	prest egon, bai;
ez bezte Jaberik	Jesusekin guazen
ez dogu nai.	guazen alai.

Egiz zuk badozu Jesus maite Beraren legian ibill zaite, bide charretatik alde alde.	gu benetan ikusiko gara zeruetan.
Jarri bedi Jesus bijotzetan Beriak bagara	Jesusen izena gaur kantatu Beraren gloria bai zabaldu erri guzietan jigora Jesus!!

Bezte bat. *Jesusen Biotza
maitetzen dogula
orain esan daigun
Jesukristo gora.*

Fede bizi baten guztiz zoli kantadu daijogun Jesuseri.	Luzifer malmutsa basterturik, orain ez daukala agintzerik.
---	---

Jesusen Biotza maite zauguz, alan gaur diñogu igora Jesus!	Benetan maitetu Jesus daigun, berau izan dedin gustien Jaun.
---	---

Bizi bedi Jesus biotzetan Lagun izan daigun esturetan.	Biotz Santu orrek batu gozuz, Zure bendeziñoz Poztu gaizuz.
---	--

51. ¡Aurrera! bijotz fedez betiak
 ¡aurrera! euzkaldun kristiñauak
 ¡aurrera bai! bildurrik bage
 Kristo geugaz beti dua.

Begira gure bandera
 begira zeñ ederra
 ez da iñoz ikusi bardiñik
 zeru goitik bera.

Jesusen Bijotz gozua
 munduaren erdijan
 Errege koroatua
 ikusi artian
 gerra beti gerra bizja
 Bere areijo gogorrakaz,
 su ta gar badatz bere
 inpernu baltzagaz.

Kristo izango da, Kristo izango da
 beti bai
 euzkaldunen Erregia
 gure bijotzen Jabia
 bezte jaberik ez dogu nai.

Entzun bedi entzun bedi
 infernuak,
 au da Jesus Beraren oijua,
 «Ni bai ni bai
 Errege izango naz
 mundu guztikua»

¡Bai!
 Aurrera bai ta aurrera beti.

Kristiñau euzkaldun fedez sutua
 ¡aurrera bai! bildurrik bage,
 Jesus zeugaz beti dua.

- 52** Kantau daigun
bildurrik euki bage
Jesukristo
dala gure Jaube,
gure Ama
Elexa Santa dala
gure Aita
Erroman dauana
guk Beragaz
bizi nai dogula.
Alper alperrik
infernuak
bialduko daus
bere suak:
Euzkeldun bijotz
fededunak
izango dira
Kristorenak.
- Begoñara
Bizkai-errijetatik
gure Amaren
elexara guaz,
Bere aurrian
belauniko jarrita
esatera,
daukagula ifinita
Bere izena
gure bijotzetan.
Gure jagola
da Marija
gure icharopen
pozgarrija
gure ama maite
ta biguna
gure arimaren
osasuna.
- 53** Jaungoiko dontzua
Jaungoiko altsua
Jaungoiko illezkorra,
gach guztijetatik
aldendu gaizuz, Jauna.
- 54**
- Gora eregi daigun
gutzijok batera
gora eregi beti
Birjiñen bandera,*
- gora gora eregi
gutzijok batera,
gora ta gora beti
Birjiñen bandera.*

Ama, zeure semiok
emen batzau gará
bedeinkatu daiguzun
dakargun bandera.
Gura dogu Satani
egin gogor gerra
eta mundu osua
jarri Zeure aldera.

Guda areijuari
euzkaldun semiak
ezkaitu ikaratzen
inpernu guztijak,
ezta areijo senduen
bala ta burdiñak
il biar baldin bada
¡Ara emen bizitzak!

Zu zara gure Ama
Zeu gure Erregiña
Zeure bandera iñoz be
beratu eziña,
su ta garrez arturik
areijo baltz gaiña
¡gora, bai, geure Ama!
¡gora Ama Birjiña!!

- 55 ¡Aurrera! kistar fedez betiak
¡aurrera! Marijaren gana
¡aurrera bai! gaur eskintera
danok bijotz eder bana. (1)
Begira an gure Ama
begira zeñ ederra
ez da jatsi Ama oberik
zeru goitik lurrera.

(1) Lotots au onelan be abestu leike:

Aurrera kistar fedez betiak
aurrera guazen Begoñara,
aurrera bai bildurrik bage
euzkaldun onak bagara.

Gure Ama bijotzekua
 munduaren erdijan
 Erregiñ koroatua
 ikusi artian,
 gerra beti gerra bizia
 Bere areijo gogorrakaz
 su ta gar badatoz bere
 inpernu baltzagaz.

Zu izango zara Zu izango zara
 Ama bai
 Euzkaldunen Erregiña
 gure errijen atsegiña
 beste Amarik ez dogu nai.
 Entzun bedi entzun bedi
 diabruak
 Zure oñazpijan zapalduak,
 gogor beti
 gogor areijuari
 jaintza Marijari!

Bai...

¡Aurrera bai! aurrera beti
 kistar euzkeldun fedez sutua
 ¡aurrera bai! gurekin dator
 Ama Birjiña garbi sortua.

(Begoñakua).

56

- 1 Siñistuten dot Jaungoiko Aita guzti aldun
- 2 Zeruaren eta luraren Egilliagan
- 3 Eta aren Seme bakar Jesukristo gure Jau-nagan
- 4 Zein sortua izan zan Espiritu Santuaren egipen eta graziaz

- 5 · Jaijo zan Marija Birjiñagandik
- 6 Padezidu eban Pontzio Pilatosen menpian
- 7 Izan zan kurutzean untzatua, illa ta enterratua
- 8 Jatsi zan inpernuetara
- 9 Biztu zan illen artetik irugarren egunian
- 10 Igo zan zeruetara
- 11 Dago jarririk Jaungoiko Aita guzti aldunaren alde eskuman.
- 12 Andik etorriko da bizjak eta illak juzgatara.
- 13 Siñistuten dot Espiritu Santuagan
- 14 Elexa Santa Katolikan
- 15 Santuen komuniñua
- 16 Pekatuen parkaziñua
- 17 Aragijaren pizkundia
- 18 Betiko bizitzia. Amen.

57 Inazio,
 gure patroi aundi
 Jesusen Konpañija
 fundatu
 eta dezu armatu,
 ez da ez etsairik
 jarriko zaitzunik
 iñolaz aurrian
 gaurko egunian,
 naiz betor
 Luzifer diabrua
 utzirik infernua.
 Zure soldaduak

dirade aingeruak
 zure gidarija
 da Jesus aundi ja
 garaitu ditu
 zure Konpanijak
 etsaijak.

Ez dauka fediak
 ez kristau neuriak
 ez dauka bildurrik
 iñungo aldetik.
 Inazio or dago
 beti ernai dago
 armetan jarrija
 dauka Konpañija
 chispaz armaturik
 bandera zabalik
 gau ta egun guk
 guztijok pakia dezagun
 beti gau eta egun.

Bezte bat ¡Iñaki,
 Jaunguak bidalduba
 ludijan ixatera
 Josu'ren
 gudarijen Buruba!
 Batzarrak autu zindun
 Bizkaitarren Zain Deuntzat
 Zeu zara Zaindari ta
 Jaun onena guretzat.
 ¡Iñaki,
 entzun arren eiguzu
 ta gure opea artu!

Bijotza bizkaitarrak
 jaijotzetik demotzu
 Zeuria da beria
 baso, mendi, ibai, arru...

¡Zeru goitik
 Deun Iñaki
 jagon ba
 Bizkaija!

Jagoizu *Jaun-Goikua*
 Jagoizu *Lagi-Zarra*
 areijo aurrian Zeuk
 agindu bizkaitarra...

Gudean sarturik
 ezpatea artuta
 bizkaitarren aldez,
 donge ta areijua
 indar zerutarraz
 zatitu oso ta...

¡Zorijontsuba
 Bizkaija beti ixango da
 Zeuk, Iñaki, zainduta.

- 58 Zure arima salbau dagizun
 oraindik zaite bizkortu,
 eta bizitza on bat egiten
 etzaite, arren, nagitu;
 betiko ona jarichi daizun
 oraingo nekiak artu,
 alan guztija zuretzat daiten
 zeruko urre biurtu.

Artzen dozuzan neke ta miñak
 dira ondasun gozuak
 orren laguntzaz jarichiteko
 grazi ugari goikuak;
 onek emongo deutzuzalako
 indar barri ta senduak,
 bakian bizi orain, ta gero
 atzegiñ azken bakuak.

Lurrian bertan orain bazagoz
 ez da au zure errija,
 bakarrik zagoz irabazteko
 azken bagako zorija;
 sentzun bakua izango zara
 oker arturik bidia
 arima eta gorputza bera
 galtzen badozu guztija.

Lurreko suak bildurtzen zaitu
 irudi utz bat izanik
 ¿zelan etzara atzeratuten
 betiko suei garretik?
 Negar samiñak emon egizuz
 bizitza charra ichirik
 infernutarrak ezin leikena
 zuk egin zeinke gaur ganik.

59 *Ilgo zara ta dozu
 izango zorija
 betiko pena edo
 betiko gloria.*

Ill biar daude jaijo diranak
 ori iñok eziñ ichi,
 onen urrengo Jainkoaz beti
 edo garretan bai bizi:
 ori jakinda, g̃jolasten zara
 maite dozula mundua?
 edo sentzuna galdurik dozu
 edo bai zara zorua.

Amar aginduak

60

- | | |
|--|---|
| Amar dira Jaunaren
legeko aginduak
zeintzuk biar dituzan
gorde kristiñauak;
lelengo irurak dira
Jaunaren onrarako
eta bezte zaspirak
danon onerako. | ta iñoz ez egiteko
Beragaitik ziñik
alper bidebagako
ta guzurrezkorik.
Irugarrenak diño
kristiñau guztijak
gorde daiguzala ondo
domeka ta jaijak;
emoten doguzala
bijotzez ezkerrak
Jaun onari, izan barik
baldan ichi alperrak. |
| Lenengo izan daigula
aginduta dago
gauza guztijak baño
Jauna maitiago:
irakatsi deuzkunez
arima-Erosliak
Apostoluak eta
Elexa Doniak. | Aita amak ondo artzeko
diño laugarrenak
Jauna ikusten betiko
juan nai dabenak;
artzen dabenak ondo
bere gurasua
eztau charto igaroko
gero sartzarua. |
| Bigarren aginduan
diño Jaungoikuak
obenak diriala
andijk birauak | |

- Boskarren agindua**
 da iñor ez iltia
 ez ifioz gauza charrik
 iñori egitia,
 ez gurari zitalik
 euki bijotzian
 ez jan ez edan bere
 gach egin artian.
- Eztaigula aragizko**
 egin pekaturik
 seigarrenian, Jaunak,
 daukazku agindurik
 asmo ta erabagijak,
 berba, gogamenak,
 garbijak izan ezik
 diriala obenak.
- Diño zazpigarrenak**
 iñori gauzarik
 ez kendu ez eukiteko
 jaubiak nai barik;
 bezte baten gauzia
 ostuteko asmua,
 jakizu kristiñaua
 dala pekatua.
- Gauza bat esatia**
 alan eztanian
 eragotzita dago
 zortzigarrenian,
- eta izengatutia
 iñor guzurrakaz,
 baita iñok ez dakizan
 egi galkorrakaz.
- Lagunaren emaztia**
 noberak desiau
 bederatzigarrenak
 galerazoten dau;
 bakarrik maite izanik
 noberan laguna
 ziurtuten dau batek
 echeko ondasuna.
- Amargarrenak diño,**
 kristiñau guztijai
 ez gogorik artzeko
 iñon ondasunai;
 norberen ondasunakaz
 poz bizi izatia
 da zeruko atsegia
 emen eukitia.
- Amar agindu onek**
 zein nai gizalditan
 Jesukristorik ona
 sartu dira bitan;
 Jaúna maite izatia
 geu baño geijago,
 eta ez nobera baño
 iñor gichiago.

Kastiguak Amar Aginduak gordeten esdituenai.

1—Jaungoikoa sinistu, maitetu eta adoratu,
Bestelan, oba espasiña munduratu.

- 2—Nundan madarikaziňoa eta juramentu
An izango da ezeukija eta eskarmen.
3—Jaungoikoari bere egunak emoten ezdeu-
[tzazanai
Kalte bere buruari, irabazi aizeari, goran-
[tzijk diabruai.
4—Ume onari Jaungoikoaren bendeziňua
[eta zoriona
Ume geistuari, madarikaziňua eta zori-
[gacha.
5—Gaizki gura deutzenak lagun urkoari
Gach geiajago emoten deutzo bere bu-
[ruari.
6—Ofendietan dabenak Jaungoikoa gorpu-
[tzagaiti
Salduten dau on guztija ongarrijagaiti.
7—Okertuten dan biotza lurreko ondasunai
Lakioan preso emoten da diabruai.
8—Bere anaija kondenau, eta miňas aginka
[egin
Egiten dau charto esaliak, bauko infernu
9—Gura izatia besteren emastia [usain.
Da infernurako laster-bidia.
10—Gura izatia besteren ondasuna
Irabazterik ez, bai kulpa eta pena.

San Luis-eri

61

*Gazte guztijok gaur gora daigun
San Luis gazte dontzua,
Berari jarrai nai dotzagunok
Dogulako ispilla.*

**Lirijo zuri polit
usain gozozkuak
Zure birtutienak
dira guztizkuak,
bada Zuk ain gazterik
Luis, pentzamentuak
erabili zenduzan
beti zerukuak.**

Arantza artian dago
larrosa usainduna
gorde daijen obeto
an edertasuna;
bizitiarren Zu Luis
aingeru antzera,
miñ artian zenduan
igaro denpora.

Gure arimak oso
desbardiñak dira
bada amen beko gauzai
dabiltzaz begira;
baña gora nai dogu
gaur zure errira
aingeruen artian
zagozan tokira.

Asis-ko S. Frantzisko-ri

*Irugarren Ordenako
Zure seme maitiak
Gatoz amodijua
Zeuri eskintzera.*

Askachu pobre baten beti izan ziñan Zu
ziñala jaijoten antuste bagia.

Jesusen antza oso
azi ziñan artzen;
zerurako bidia
da humildadia

Maite zendualako
biartzu izatia
pobriai emon zeuntzan

Zuk seni-partia;
pobreza Zuk semiai
zeuntzen bai agindu,
birtute onetan Zu
iñok bez bardindu.

Aita Zure semiak

dira oso pobriak
alan gauza guztien
dirala jaubiak;
nekatuten zenduan
gogor bai gorputza
arimak eukiteko
bere nagusitza.

- 63 1 Entzun egizuz pekatarija
arima baten negarrak
jakin dagizun donetuteko
dirala guztiz biarrak.
- 2 Naibagez larri zauzan arima
zer dozun, arren, ezaizu,
negar orrekaz neure bijotza
erdibituten deuztazu.
- 3 Jaungoikuentzat iraiñak dira
zuk dituzunak aïñ damu
bijotz guztijaz damu badozu
ez da oraiñdik berandu.
- 4 Barru orretan senti dozuzan
Jaunaren desengañuak
ichi-erazo deutuez oraiñ
lengo ibilte galduak.
- 5 Pekaturako jolas ta dantzak
ichirik alde batera,
bakartadian zeure burua
bazuaz eskutatzera.
- 6 Eskutu artan billatzen dozu
bakartadian lekua
nolabait laster irabazteko
lengo denpora galdua.

- 7 Zeure begijok buztirik bada
Jesukristoren oñetan,
auspez etzunik ikusten zaitu
negarrez era onetan.
- 8 Neure Jaungoiko laztana, arren
nigaz euki errukija
Zugana ezpada *ȝ*nora biurtu
leiteke pekatarija?
- 9 Arpegija nik lotsaz gorri dot
Zugana agertutian
gogoraturik zer egin dodan
Zu alan iraindutian.
- 10 Badakit, Jauna, ondo dodala
infernua, bai, merezi,
egon naz bada neure bizitzan
Zugaz aztuta ni beti.
- 11 Kurutz orretan Zu ipinteko
*ȝ*zer izan zan motibua?
bakar bakarrik euki deuztazun
betiko amodijua.
- 12 Beraz orrela ustantzaz nator
kurutziaren oñera,
parkamen bidez,
zure grazian sartzera.
- 13 Jesus neuria, ez da ez izan
munduan pekataririk
nik baxen charto naitasun orri
erantzun izan deutzanik.
- 14 Lenago bere orainche legez
ezagutu bazindudaz
etzindudazan nik irainduko,
neure Jaubia, aiñ erraz.

- 15 ¿Zergaitik dodaz ainbeste orain
 zugaz iraiñak sentitzen,
 bada bijotza bere artian
 daukat naibagez satitzen?
- 16 ¡Ai neure Jesus! ¡neure Jaubia!
 ¡ai neure aita amultsua!
 urratu dozu gestokitarrak
 ezarri euzten lazua.
- 17 ¿Zegaz ordaindu leiteke bada
 Zure erruki andija
 icharoteko ain luzaruan
 ni lako pekatarija?
- 18 Zu biar zara izan aurrerantz
 nire bijotzaren Jaube,
 beste guztijak galdu arren be
 ez dót bizi nai Zeu bage.
- 19 Agur mundua, agur lagunak,
 nai ez banozu jarraitu,
 ichi niri ba nai dodan legez
 dagidan Jauna serbidu.
- 20 Negar orrekaz garbitu egizuz,
 arima, zuk zeure loijak,
 chiki ta andi egin dozuzan
 zeure obenak guztijak.
- 21 Badakit orain lagun gaitzuak
 ezan dabela zugaitik;
 «donetu ustia guk be badogu,
 «¿zergaitik zuaz gugandik?
- 22 «Baldin biurtzen ez bazarie
 «lengo adiskidetara,
 «bizitza triste orrekin zuaz
 «zeure burua galtzera.

- 23 «¿Zeinbat obe zan orain aldian
 «jolastu emen munduaz?
 «urterik asko gelditzen jatzu
 «biziteko gero penaz.
- 24 ¡A lagun gaiztol! ¡lagun guzurti!
 ¡a lagun beti itsua!
 ik emongo dok egunen baten
 arima askoren kontua.
- 25 Zeinbat alditan balijatzen dok
 etsaia ire miñagaz
 Jesukristori ostu-kentzeke
 arimak ire guzurraz.
- 26 ¿Badakik ondo ze pišu daukan
 Jesukristoren Odolak?
 onen kostuan erosi jozak
 ik galdu dozan arimak.
- 27 Ichoik piskabat, etorriko dok
 iretzat egun larrija,
 orduan ondo pišatuko dok
 ire pekatu andija.
- 28 Baña zuk orain, arima ona,
 ichi zeure belarrijak
 ez entzuteko lagun gaiztuen
 esames ain galgarrijak.
- 29 Iguiñez beti mundu zorua
 ta diabrua arrenaz
 aragi ori menperatzen da
 galbide orok ichijaz.
- 30 Izan dituzun tentaziňuaz
 ez dozu zetan bildurtu;
 Santu guztijak zuri laguntzen
 ta zeure aldez daukazuz.

- 31 Onek bai dira itunben onak
 arimari egokijak,
 ondo sarturik zeure goguan
 euki egizuz guztijak.
- 32 Mundu onetan egingo dozu
 santuen bizitz gozua
 arima garbi, bijotz alaia
 guztija Jaungoikozkua.
- 33 Pekatarijak dauke bijotza
 guztija arantzaz josirik
 barruko keskak barre guzurtiz
 iñoz estaldū eziñik.
- 34 ¿Zer dauka orain zer ikusirik
 bizitza batek bestiaz
 munduan bere igaroteko
 atsegiañ eta bakiaz?
- 35 Artu dituzun asmo santuak
 ichiten ez badituzu
 ilterakuan ze poz andijaz
 onerechiko dituzu.
- 36 Orduan, diñot, euki egizuz
 azken-itz onek goguan,
 lo gozo batek artuko zaitu
 Jesukristoren besuan.
- 37 ¡Pekatarija! entzun dozuzan
 arima onen negarrak
 guztijak dira Jaungoiko onak
 egin deutzuzan diarrak.
- 38 Biurtu zaite ainbat lasterren
 zeure Jaungoikua-gana,
 Bere besuak zabalik dago
 artzeko zu Beragana.

39 Milla leunketaz artuko zaitu
 Bere besuen artian
 Bera dalako aita amultsua
 zeruan eta lurrian.

- 64 Jesukristo-ri kendu ezkeror
 pekatuakin bizitza
 baldiñ ezpadot negar egiten
 arrizkua dot bijotza:
 guztijok lagun
 abestu daigun
 Bere penazko erijotza.
 Mundua baño asko lenago
 izentauriko eguna
 eldu izan zan ekarteko-tzat
 gizonari osasuna;
 argija bera
 alde batera
 bestetik egun illuna.
 Eguen santu afal-onduan
 Bere lagun zitzuzala
 Jesusek iru dizipuluai
 itz egiñ eutsen onela;
 larri nago ta
 lu ori botia
 egizue emen gauela.
 Jetsemaniko baratz santuan
 auspez lurrian etzunik
 eskatzen eutsan librau eijela
 Aitari ordu atatik;
 Jesus nekatzen

odolez urtzen
¿eta eztot nik negarrik?

Izerdi otza arpegijan ta
bijotza neke artian
illun gogua, gorputza larri
agoniako trantzian;
baña alanbere
eguán firme
Aitaren borondatian.

Judubak Judas lagun arturik
etorri ziran itauntzen
¿Nazaretarra derichon Jesus
emen ete da aurkitzen?
Judas orduan
bake soñuan
dua mosua emoten.

Zeinbat dirian jai! Judas legez
Kristoren adiskidiak
kanpotik laztan, barrutik saldu
auzirik bere legiak;
kistar guzurti
arima gaitzo
pekatari traidoriak.

Erantzun eban Jesus maitiak
¿noren billa zatoz ona?
ara emen nago, ezta besterik
gura dozuen gizona;
juateko eztot nik
soka biarrik,
ez eldu lagunok gana.

Eskuetatik lotu izan eben
guztijon askatzallia

auxe bada zan geure onian
 Jaunaren borondatia;
 urratuteko
 ainbat urteko
 pekatuaren katia.

Dizipuluak euren Maišua
 ebenian alan ikusi
 bakar bakarrik Bera ichita
 danak zirian igasi;
 Pedro etorren
 Bere ondoren
 baña au bere urruti.

Darue bada Jerusalengo
 Jauparijaren aurrera
 ikaslari-tzaz ta irakaskin-tzaz
 kontu ziatza emotera;
 Kaifas gaiztua
 aurrenengua
 asten jako itauntzera.

Eztot nik, diño, Berterosliak
 predikadu eskutuan,
 agirijan nik erakutsi dot
 Sinagogan ta Tenpluan;
 ez niri itandu
 bada asko dira
 entzun deuztenak munduan.

Erantzupen au entzundakuan
 gudari batek bertatik
 gora darua bere besua
 eta dirautzo Jaunari;
 ikasi daizun
 zelan erantzun

ostera Pontifiziari.

Esan ta egiñ emoten deutzo
bere arpegi ederrian
belarrondoko andi bat, zeñek
ezarri eban lurrian;
eta zeruak
dagoz lotuak
au ikusten dabenian.

Nozko dira ba Aita Betikua
chimistak eta suak
ez erretako an berpertatik
orren esku ain gaiztuak;
tira aingeruak,
elzaitez egaz,
¿nun dituzubez eguak?

Baldin deungaro itz-egiñ badot
zegaitik esan egizu,
baña ezpadot, diño Jesusek,
ezetan bere erratu
çzergaitik arren
itz egiñ arren
onelan nekatzen nozu?

Iratsi Jesus bijotzekua
niri eruapen ori
jakiñ dagidan zelan penetan
emongo dodan arpegi
parkatuagaz
bijotz osuaz
areijo andijenari.

Damu dot, Jauna, bijotz guztitik
Zeu nik ain sarri iraindua;
ez, ez geijago nik pekaturik

neure Jaungoiko laztana;
 lar da obenik
 betoz agaitik
 nekauzte orrek nigana.

Sua eguan atarijan ta
 Pedro su atan berotzen
 bada bijotzak maitasunian
 otz asko eutzan sentitzen;
 su aren keiak
 bere begijak
 negarrez deutzoz betetzen.

Ez eban bada ollarrak emon
 birritan bere soñua,
 baña iru bidar ukatu eban
 San Pedrok bere Maisua;
 ezta besterik
 galbidetatik
 ateraten dan pagua.

Kaifasek baña barriz diñotzo
 egiñik juramentua
 esan egizu Jesus bazara
 Mesias sarri agindua;
 alan ezpada
 ¿zetako iñan da
 engañetia mundua?

Ondo ekijan Jesusek nora
 joian Kaifasen asmua
 epai gaitua ak emoteko
 billatzen eban zijua,
 nai eutzala egin
 autormenakin
 ilteko akusaziñoia.

Orregaitik be baijetz darantzu
 Aitari begiraturik
 baita Kaifasek bere diadar
